# Etorkizuneko hiritar euskaldun eta jantziak hezten ditu Durangoko Ibaizabal Ikastolak

- **Batxilergoa**: giza- eta gizarte-zientziak eta osasun- nahiz teknologia-arloko zientziak.
- **Lanbide-heziketa**: Haur Hezkuntzako eta Gizarteratzeko Goi-mailako Zikloak.
- Ikastaroak eta titulu profesionalak **irakaskuntza ez arautua**n, doan: sorosle izateko ikastaroak, mendekotasuna duten pertsonei gizarte-egoitzetan arreta soziosanitarioa ematekoak, hizkuntzak…

Kurutziaga Ikastolaren hezkuntza-eskaintza 18 urtera artekoa da. Izan ere, 4. DBHra arte Kurutziagan ikasten duten ikasleek Ibaizabal Ikastolan dute gero jarraipena Batxilergoarekin, Durangon bertan.

**Gertuko Ikastola**. Familia-giroko Ikastola txikia izateak harreman estua, komunikazio zuzena eta informazio gardena ahalbidetzen ditu, bai ikasleei begira, bai familiekiko.

Gertutasun hori maila akademikora ere eramatea ezinbestekoa da. Horregatik, **hezkuntza-errefortzuak eta orientazioa** jasotzen dituzte Ibaizabal Ikastolan ikasleek etapa garrantzitsu honetan: errefortzuak errepasorako edo emaitzak hobetzeko, eta orientazioa erabakiak hartzen laguntzeko (adituekin, ikasle ohiekin, bisitak, azokak, tailerrak...). Ikaslea dago Ibaizabal Ikastolaren erdigunean: ikasgaien aukeragarritasuna handitzen zaie, ebaluazio oro emaitzak hobetzeko aukera dute, Selektibitatea (USE) prestatzeko saioak ematen zaizkie, tutore pertsonal bana dute…

**Berrikuntza pedagogikoa.** Esperimentazioa eta sormena ere Ibaizabal Ikastolaren printzipioetan daude. Testuinguru errealetan oinarritutako hezkuntza praktikoa ematen dugu, konpetentzietan oinarritutako metodologiarekin. Ikasturte honetako zenbait egitasmo: Ikastolaren maketaren diseinua eta fabrikazioa; animalien disekzioa; filosofia lehiaketa; enpresa-zerbitzu bat garatzeko ideia-lehiaketa StartInnova sariketan; material- eta elikagai-bilketak GKEak laguntzeko; film laburren ekoizpena IKT tresnak erabilita…

**Ikasle euskaldun eleaniztunak**: Cambridge azterketak egiten dira Ibaizabal Ikastolan bertan, atzerrirako ingeles-bekak kudeatzen dituzte, latina eta frantsesa aukeran dituzte ikasleek eta nazioarteko hizkuntza-proiektutan hartzen dute parte, urtero elkartruke-programa egiten dute Iruñeko Ikastolarekin Nafarroako euskararen egoeraren berri bertatik bertara ezagutzeko, e.a. Euskara naturaltasunez bizi eta erabilaraziko dien ingurunean murgilarazten dituzte ikasleak Ibaizabalen.

Ikasleak diren bezalakoak direla, beren gaitasunak muturrera eramatea eta norbere erritmoan aurrera eginaraztea dira helburuak Ibaizabal Ikastolan. Aniztasunak aberasten gaitu. **Puntako emaitza akademikoak** eskuratzen dituzte Ibaizabal Ikastolako ikasleek. Iaz % 100ak gainditu zuen Selektibitatea ohiko eta ez-ohiko deialdietan.

Emaitza bikain horietan zalantzagabea da eskola-ingurune apropos batek eragiten duen onura. Maila berean, **eremu ez formala** ezinbestekoa da ibilbide akademikoa osoa izan dadin: irteerak, hitzaldiak, *Irakurrixu* eskola-aldizkaria, jaialdiak, antzerki-tailerra, eztabaida- eta gogoeta-foroak eskola-orduz kanpo, auzolana, e.a. Gainera, Ikastoletan ohikoak ez diren zerbitzu osagarriak daude bateratuta Ibaizabal Ikastolaren egituran: kafetegia, ostatua, gimnasioa (muskulazio-gela, kirol-ikastaroak...), aparkaleku pribatua, jantokia eta garraio-zerbitzua Durangotik kanpokoentzat.

Ikasleen eta familien esanari entzun besterik ez dago **Ibaizabal Ikastolarekin pozik** daudela ondorioztatzeko. Gu, ikastola!

2024/2025 ikasturtean Ibaizabal Ikastolaren komunitatearen parte izan nahi baduzu: https://ibaizabalikastola.eus/matrikulazioa (laster egongo da erabilgarri). Batxilergoko **aurrematrikula epea apirilaren 8tik 19ra bitartean izango da, bi egunak barne**.

Apirilaren 10ean eta 11an Batxilergoko **ate irekiak familientzat,** web orrialdean izango duzue informazio guztia. **Ezinbestekoa izango da izen ematea.**

***Argibideetarako:***
IBAIZABAL IKASTOLA
Intxaurrondo kalea 54
48200 Durango (Bizkaia)
Tel: 94 621 58 77
idazkaritza@ibaizabalikastola.eus

GAZTELANIAZ

Parte del edificio de Ibaizabal Ikastola sito en Durango fue antiguamente molino. Hoy en día, entre sus paredes resuena el eco de los distintos matices del euskara de Durangaldea, Lekeitio, Ondarroa, Galdakao… Es del alumnado que acoge este centro de enseñanza cuya calidad está avalada por numerosas certificaciones y auditorías. Pero el mayor de los reconocimientos que atesora proviene, precisamente, de la opinión y consideración de su propio alumnado, tanto actual como anterior.

Ibaizabal Ikastola ofrece la doble opción de cursar **Bachillerato** o **Formación Profesional**. En el caso del Bachillerato,en las modalidades de humanidades y ciencias sociales, o en la de ciencias y tecnología. En el caso de la Formación Profesional, con dos ciclos superiores en Educación Infantil e Integración Social . Además de ello, cuenta con una línea de **formación no reglada** que abarca cursillos y titulaciones profesionales en ámbitos como el socorrismo o los idiomas.

Según los expertos y la documentación recabada, el signo distintivo del antiguo molino en el que se ubica IbaizabalIkastola fue la tecnología pionera que utilizaba para su época. Ibaizabal Ikastola no ha olvidado aquel carácter, y la innovación pedagógica y la excelencia siguen siendo sus señas de identidad.

Las clases de refuerzo fuera del horario escolar, el asesoramiento y la orientación individualizada a cada alumno/a yfamilia para la toma de decisiones a futuro en un período tan crítico como el Bachillerato, y la figura del tutor/a personal convierten a Ibaizabal Ikastola es una ikastola cercana.

La experimentación y diversos proyectos interdisciplinares, basados en situaciones reales, confluyen en una educación eminentemente práctica.

Conscientes de que un clima de confianza y un entorno afable impulsan el crecimiento personal y académico, y llevan al extremo las capacidades propias del alumnado, son numerosas las actividades y foros que, a petición del alumnado, y tanto dentro de la jornada lectiva como fuera de ella, se desarrollan anualmente en la Ikastola.

El resultado de todo ello es el buen nivel de preparación del alumnado al finalizar su proceso de aprendizaje en Ibaizabal Ikastola, como personas competentes y comprometidas. Los resultados académicos son sobresalientes. En estos excelentes resultados es inequívoco el beneficio que produce un entorno escolar propicio. En el mismo nivel, el ámbito no formal es imprescindible para que el recorrido académico sea completo: salidas, sesiones informativas, revista escolar Irakurrixu, festivales, taller de teatro, foros de debate y reflexión fuera del horario escolar, auzolan, etc. Además, en la estructura de la Ikastola Ibaizabal existen servicios complementarios no habituales en una Ikastola: cafetería, alojamiento, gimnasio (sala de musculación, cursos deportivos...), aparcamiento privado, comedor y servicio de transporte para personas de fuera de Durango.

PERÍODO DE MATRICULACIÓN BACHILLERATO CURSO 2024/2025: del 8 al 19 de abril, ambos inclusive.

Los días 10 y 11 de abril, PUERTAS ABIERTAS de Bachillerato para las familias, encontraréis toda la información en la página web. Será imprescindible inscribirse. AQUI